

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Amue herriarentzat
berreskuratuko da**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Ale honetan zer?

Amueko Plan Berezia	3
Elkarrizketa	5
Etorkizunean zer?	6

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.

ORAIN ARTEKO BIDEA

- 2021ean, Azpeitiko Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorren U.A.11 eremuaren Plan Berezia idazten hasia erabaki zen.
- 2022ko martxoaren 23an, Azpeitiko Udalak plan berezi horren zirriborroa eta hasierako dokumentu estrategikoa bidali zituen Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzara, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egitea eskatuz.
- 2022ko abuztuaren 22an, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak ebazpena eman zuen, eta, horren bidez, Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren irismen-dokumentua formulatzea ebatzi zen, H.A.A. 11 UE eremuan.
- Irismen-dokumentuarekin batera, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulta-aldian jasotako txostenak aurkeztu dira:
 - Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saila, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostena.
 - Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza .
 - Uraren Euskal Agentziako Plangintza eta Obren Zuzendaritza
- 2023ko otsailaren 28an, Azpeitiko hirigintza antolamenduaren Plan Orokorren 11 HE AMUE azpieremurako plan berezia-ren ebazpena sinatu du alkateak.



Amueko Plan Bereziaren hasierako onarpena emateak garrantzia handia du eta horren jakitun da Nagore Alkorta alkatea. Eremu hori berreskuratuta berdegune zabala, ibai ertzeko paseoa eta beste hainbat ekipamendu bertan izatea aurreikusten da. Horrekin batera, Azpeitiak duen uholde arriskuaren arazoari irtenbidea emateko neurriak ere bilatuko dira. Azpeitiaren etorkizuna marrazteko gune estrategikoa da Amue, eta azpeitiarren interesen arabera garatzeko lan egingo du udalak.

Plan Bereziari hasiera ematea, gaur egun ezagutzen dugun Amue atzean uzteko behin betiko pausoa da?

Bai, plan bereziaren hasierak berak automatikoki ondorio batzuk eragiten ditu eremuan. Amue berreskuratu eta Azpeitiko eremu publikoa izateko idea hasi besterik ez bada egin ere, erabaki eta urrats garrantzitsua da hori, Azpeitiaren eta azpeitiarren etorkizunerako gune estrategikoa da



“Amue eremua erabilera publikorako berreskuratzeak Azpeitia eraldatzen jarraitzeko aukera eskaintzen digu”

Nagore Alkorta
Alkatea

Amue. Eremu horren erabilera publikoak herria eraldatuko du.

Plan bereziak zehaztuko du eremu horren garapena. Lehen dokumentua eginda hasi duzue bidea.

Lehen urratsa da, baina garrantzia berezia du. Orain, egindako tramitatutako dokumentu horren lanketan sakontzea dagokigu, baina dokumentu sendoa da oinarrian egin duguna eta beste hainbat eraundetako sailetara ere bidali dugu onespina jasotzeko. Konplexua izango da eta udalak Plan Orokorra oinarri hartuta herri interesen arabera garapena bultzatuko du.

Eremu estrategiko da Azpeitiko etorkizunerako.

Azpeitian sortzen diren beharrei erantzun eta herria eremu berri gehiago hartu gabe hazteko aukera eskaintzen du eta estrategikoa da, dudarik gabe.

Bederatzi hektareako eremua da, herri erdian, aukera asko eskaintzen ditu. Berdegune zabala edo ekipamenduak izatea aurreikusten da bertan. Baina guztia baino garrantzitsuagoa izango da Azpeitiak duen uholde arriskuaren arazoari aurre egiteko aukera dugu. Horretarako lanean ari gara Uraren Euskal Agentziarekin. Hala, ibai-eder ibaia zabaltzea eta beste hainbat neurri hartzea aurreikusten ditugu.


Bederatzi hektareako eremua da, herri erdian, aukera asko eskaintzen ditu. Berdegune zabala edo ekipamenduak izatea aurreikusten da bertan.

Etorkizunean zer?



Etorkizunean zer?

Plan bereziak honakoa aurreikusten du
Amueko eremuak 90.992 metroko eremurako:



01. ■

UHOLDE ARRISKUA TXIKITU

Eremu horrek eta Azpeitiko beste hainbat eremuk duten uholde arriskua txikitzeko alternatibak aztertu ditu Azpeitiko Udalak Uraren Euskal Agentziarekin.

03. ■

EREMUAREN BERRITZEA

Plan Orokorrean jaso bezala, eremu horretan Eguzkiaren argitasuna, eraikuntzaren altuera, erabilerak, kalitatez hiri-espazioak sortzea. Bertan besteak beste, honakoak aurreikusten dira:

- Etxebizitzak
- Gune berde publiko zabala
- Ibai ondoan pasealekua
- Ekipamendu publikoak
- Merkataritzarako eremua

Bere horretan mantenduko dira Frantziskanetako konbentua, eliza eta Foru Pasealekuan, Ibai-eder ibaiaren gaineko etxebizitzak.

02. ■

BIDEGORRI ERREPIDE SAREAREN LOTURAK

Plan Orokorrean jaso bezala, eremu horretan bidegorria integratu eta Azpeitiko bidegorri sarearekin lotzea aurreikusten da. Errepidea udal-bide sarean sartzea eta trenbide trazadura berreskuratzea ere proposatzen du.

04. ■

INGURU BERDE PUBLIKOA

Ibaieder ibaiaren eskuinaldea berreskuratzea, gaur egun bideratuta dagoena. Ertzeko pasealekua ibaiakoa.

Berdegunea/parkea, komentuarien etorkizuneko ekipamenduarekin batera.

05. ■

ONDARE HISTORIKOA ZAINTEA

Amueko zubia eta Frantziskanetako konbentua ondare historiko izanik horien berreskurapena eta zaintza aintzat hartzen ditu.



Etorkizuna egiten



Azpeitia
Denontzat

www.azpeitia.eus